Prozedura:	P1- Previo de necesidades
Esp.zk.:	2022/62
Interesduna:	
Ordezkaria:	
Lekua:	
Gaia:	Mungiako Udaleko langileak euskaraz trebatzeko prestkuntza-zerbitzua kontratatzea

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, MUNGIAKO UDALEKO LANGILEAK EUSKARAZ TREBATZEKO PRESTAKUNTZA-ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA –PROZEDURA IREKI BIDEZKOA– ARAUTUKO DUENA

1.- Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea Mungiako Udaleko langileak euskaraz trebatzeko prestakuntza-zerbitzua emango duen enpresa aukeratzea.

2. Ezaugarri teknikoak

Trebakuntza programaren xede orokorra da Mungiako Udaleko langileak euskaraz lan egitera eramatea, bide planifikatu eta ebaluatu baten bitartez, euskara Udalaren lan hizkuntza bilakatzeko bidean. Xede horri begira ezinbesteko erreferentzia da Udalak euskararen erabileraren esparruan onartuak dituen arauak eta erabakiak.

Trebakuntza programa honen helburu nagusia da, Mungiako Udalean euskaraz lan egin behar duten langileak euskaraz lan egiten hastea edota langile horiek egiten duten euskarazko erabilera sakondu eta hobetzea. Horretarako, trebatzaile baten laguntza, gidaritza eta orientabidea izango dute; batetik, egoera aztertuta, dagokion epearen trebakuntza-programa diseinatu eta zehazteko; eta bestetik, behin programa abian jarrita saio horiek eskaintzeko. Trebakuntza-programa batez ere idatzizko komunikazioari zuzenduta egongo da, baina ahozko komunikazioari dagokion berariazko trebakuntza ere eskainiko da.

Trebakuntza honen bidez, Administrazioko langileek erabili ohi dituen administrazio-idazki errealak eta bere zereginen barruan idatzi behar dituenak kalitate parametro batzuen arabera sortzeko edota egokitzeko gaitasuna hobetuko dute, testu zuzenak, egokiak eta argiak sortu ahal izateko. Trebagai bakoitzarentzako helburu zehatz eta argiak ezarriko dira, trebatzailearen eta trebagaiaren artean finkatu eta jasoko direnak, bakoitzaren gaitasunaren eta egoeraren arabera.

3.- Kontratuaren iraupena

Hamabi hilabetekoa izango da (Udalaren beharrizanak kontuan hartuta, uztailean edo abuztuan hilabeteko etena izango du zerbitzuak). Udalak, hala erabakiz gero, beste urtebete luzatu ahal izango da.

Kontratuak fase bi izango ditu:
a) Lehenengo hilabetean urteko trebakuntza-programa diseinatu eta adostuko da.

Egiaztapen-kode segurua:
Código Seguro Verificación: 14156533352132657303
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion

b) Hortik aurrera trebatze-saioak abian jarri beharko dira.

4- Enpresaren eta langilearen ezaugarriak

Enpresa
Lehiaketa honetan aurkeztu nahi duten enpresek gutxienez ere 3 urteko esperientzia izan beharko dute lan arloa euskalduntzen edo euskararen erabilera arloko zereginetan.

Trebatzailea
Derrigorrean bete beharreko baldintzak:

- Esperientzia izatea ondoko lan-arloetakoren batean: euskalduntze-alfabetatzean, bestelako prestakuntza- zein trebatze-lanetan edo euskararen inguruko osterantzeko proiektuetan administrazio publikoan.

- Euskarako C2 gaitasun maila egiaztatuta izan beharko du.

- Bizkaiera jakin beharko du. Hori egiaztatzeko, bizkaieraren ezagupena egiaztatzen duten agiriak (tituluak) aurkeztu beharko ditu edo, bestela, Mungiako Udal Euskaltegiak egindako ahozko proba bat gainditu beharko du.

Enpresak zerbitzua emateko izendatzen duen trebatzailea trebakuntzak iraungo duen hamabi hilabeteetarako izendatuko du; eta, ezinbestekoren bat tarteko ez bada, ikasturte osoan lan horretan mantenduko du. Trebatzailea aldatu ahal izateko, enpresak Mungiako Udalaren Euskera Sailari eskaera arrazoitua egingo dio eta proposatzen duen trebatzaile berriaren curriculuma helaraziko dio, trebatzaile izateko zehaztu diren ezaugarri guztiak betetzen dituela ziurtatuz.

5.- Kontratatu nahi den zerbitzuaren zereginak eta atazak

Lanpostuko trebakuntza programatu, gidatu, mamitu, ebaluatu eta jarraitzeaz arduratzea. Hau egiteak honako hau suposatuko du, besteak beste:

- Trebakuntza-programa diseinatu (nori, zelan, noiz), Euskera Saila berarekin adostuta.
- Trebagaiarekin batera, trebakuntza-aldiko helburuak formulatu.
- Ikasmaterialak prestatu.
- Trebagaiak behar dituen bestelako materialak prestatu, eskuratu edo lortzen lagundu.
- Trebatze-saioak programatu, prestatu eta egitea.
- Trebagaiak erabili beharreko lan baliabideak egokitu.
- Trebagaiak sortutako idatziak zuzendu, txukundu eta orraztu.
- Idatzion moldaera eta idazkera hobetzeko trebagaiari irizpide eta aholkuak eman.
- Trebagaiekin egindako trebakuntza-lanetatik eredugarriak izan daitezkeen materialak bildu, gerora osa daitezkeen ikasmaterialak prestatzeari begira.
- Bere mende dituen trebagaien trebakuntza-aldia ebaluatu eta jarraitu.
- Trebakuntza-aldi bakoitzaren amaieran ebaluazio-txosten bat egitea, trebakuntza-aldiaren eta trebagaien ebaluazioa jasoaz.
- Trebakuntza programa hobetu eta garatzeko berrikuntzak proposatu.
- Euskararen erabilera bultzatu eta garatzeko ahaleginetan parte izan, eta, oro har, erabilera programa horien laguntzaile izan.

Egiaztapen-kode segurua:
Código Seguro Verificación: 14156533352132657303
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion

6.- Antolakuntza orokorra eta egutegia

Trebakuntza programa hau 12 hilabetekoa izango da, eta alde biek (kontratatzaileak eta kontratatuak) adostutako egutegiaren arabera gauzatuko da.

Trebatzaileak 4 orduko lana izango du egunero (ordu horiek jarraian izango dira). Goizez bete beharko du lan hori; eta ordutegia Udalak zehaztuko du trebagaien beharrizanak kontuan hartuta, betiere, enpresarekin adostuta.

7.- Aurkeztu beharreko agiriak

Baldintza administratibo berezien agirian ezarritakoez gain, puntu honetan xehatzen diren
dokumentuak aurkeztu behar dituzte eskaintzaileek.

- Eskaintza ekonomikoa: kontratazioaren baldintza administratibo berezien agiriko eranskinarekin bat etorrita idatzi behar da.
- Eskaintza teknikoa.

Egiaztapen-kode segurua:
Código Seguro Verificación: 14156533352132657303
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion